

Alfonso M.<sup>o</sup> Zabala

# Melitona'ren bi senarrak

ANTZERKIA

*Euskalerrriaren alde'k argitaratua*

Antzerki ut. Donostiko INTERD-GAZTEGIA'rentzat  
idatzitakua da, ta gazte ozen bitokian esan eun  
..... lehenngo aldiz - .....



DONOSTIA'N  
MARTÍN, MENA Y C.<sup>o</sup>'REN ECHEAN  
Fuenterrabía, 14. boka golan

1918

ATV  
31403



## Melitona'ren bi senarrak

Ona biltokian ikusten dana: zuaiztun zelai bat, kale baten alde. Zuaitz batetik zintzilizka bi espata kurutzetuak. Iruditegiaren aurre-samarreun arrizko potzu bat, aopotzu ta guzti, ta arri oetako baten gañean karta pare bat. Iruditegiko estalgarria jasotzean, kale-garbitzalle bat, izuzki (eskoba) loze bat eskuan duala agertuko da; garbitzen duan bitartean, Bilinch'ek zaldi zuriari jarritako berso oek kantatuko ditu, ots aundirik gabe.

### I

#### KALE-GARBITZALLEA ta DENDARIA

Orra sei berso kale  
garbitzalleari.  
zeña bere izenez  
dan Jose-Mari.  
Erreza lezazkike  
iru Avemari  
indarra etortzeko

zaldi zuriari.  
Animali ori  
erruki zait neri;  
palta du ugari-  
egoteko guri.  
Kartoyakin egiña  
dala diruri.

(Dendaria, mutil gazte bat, alde batetik azaldu bedi, ta aserre-aserre kale-garbitzalleari esan bezaio)

DEND. Aizu, don barrekalles, ezure kantuen zale garala uste aldezu?... Zoaz ortik beste alde batera... Utsa litzake tajuz kantatuko balu... Baña boz aguardientetzu orrekin ichurarrik ere ez dio ematen. Zoaz bada ortik, demonio alproja... (Dendaria badijua beste gabe. Karrika-garbitzalleak ez dio begiratzen ere, eta asten du bigarren bersoan, ots aundiagon aterez)

- GAR. Goizero bear dio ezurak ugari.  
eraso lanari Eta Jose-Mari  
zikiñak bildu arte ez naiz chanchaz ari  
erri danari. nai aiña janari  
Berriz ere obeto zaldi zuri orri  
bizi ez danari eman zayozu ia  
nabarmenduko zaizka jartzen dan lodi. (bis)
- DEND. (Bigarren aldiz irtetzen da) Emendik alde egiteko ¿ez aldezu entzun, don kirten? ¡A zer musikoa zu zure kantak gogoz entzuteko! Belarriak puskatzen dizkidazu zure kantu nazkagarri oyekin, eta emendik alde egiten ezpadezu, bizkarrara berotuko dizut. ¡Demonio astaputza! Esan da ere ez du gero aditzen. (Dendaria eskutatzen da. Garbitzalleak jaramonik ere ez dio egiten, eta dendaria alde egin bezin laister asten da irugarren bersoa, ordea ots aundia atereaz, edo gero ta altuago)
- GAR. Lana sobradu baña mobitu du anka.  
janaria palta Pensu guchi jan ta  
errukarria dauka kalian jiraka  
dakarren planta. gaizki bizi da ta  
Gasuak ezdezake Indarrrik ez daka...  
luzaro aguanta ezin karriatu du  
plakiarekin ezin gurdi bat...
- (Berso onen azkeneko itza esan baño len, irtetzen da dendaria irugarren aldiz kana bat eskuetan duala eta dijoakio garbitzalleari amorru bizian jotzera, esanaz:)
- DEND. ¡Arrayo beltza ta lotsagabea! Ausiko dizkiat onoko kana onekin bizkar ezurra ta burua. ¿Ez diat esan emendik alde egiteko? (Garbitzalleak, dendaria kanaz jotzera datorkiola ikustean, jasotzen du izuzkia ta jartzen dio aurpegian; asitzen dira lasterka biak; garbitzalleak, potzura gerturatzean, bustitzen du izuzkia uretan eta bustitzen du dendaria; garbitzalleak ez du itzik esaten eta dendariak deitzen dio «lapur zikiña», «urdia», «alproja», eta esan al guztiak eta dabilta iruditegian bata bestearen ondoan dendaria garbitzallea jo nayan eta bestia izuzkiaz bere burua gordeaz)

II

ESANAK eta ZELADORIA

- ZEL. (Biyon artian jartzen da) ¿Zer gertatzen da emen? (Dendariari)  
¿Erriko empleatu oni zuk zer bear diozu?
- DEND. Arrayo ori, ausiko diot bizkarra.
- ZEL. ¿Bizkarra ausi? ¿Onen bizkarra zurea alda? Zurea nai badezu ausi ezazu. (Garbitzaleari) Gizona, ¿zer egin dezu dendari au orrela asarratu erazitzeko?
- GAR. Garbitu.
- ZEL. ¿Zer geyago?
- GAR. Kantatu.
- ZEL. (Dendariari) ¿Eta garbitu ta kantatu dualako, bizkarra ausiko diozula diozu?
- DEND. Bai: kantatu nai badu esan diot beste alde batera dijuala, ni orren kantu-zale ez naiz ta.
- ZEL. ¿Eta kantatu nai badu zuk eragotzi biar aldiozu? ¿Zer nai dezu bada? ¿negar egin dezan? ¡Ba, ba, ba! Zoaz ortik zere dendara, nai ez badezu berealase giltzapera joan. Nik jarriko diot orainche *denunzia* bat alkate jaunari modu orretan erriko empleatu bat erabili dezulako.
- DEND. ¿Ni giltzapera? ¿Ni denunziatua? Zaude, zaude; gure nagusiak biok konponduko zaituzte. (Badijua)
- ZEL. (Garbitzaleari) ¿Eta zu auzi billa alzabiltza?... Ea ortik beste alde batera... Jende oekin ezin bizi diteke. (Badijuaz)

III

MELITONAREN LENENGO SENARRA

(Ogeitamar urte bezela dituen gizon bat, ondo samar jantzia, eskopeta bat bizkarrian duala; aurpegi tristia danka)

- LEN. Ai... Nai ta nai ez ill egin bear... ¿Nola biziko naiz?... Ez daukat ez gurasorik, ez adiskiderik, ez dirurik, ez emazterik... Emaztea bai; legez badet, baña nere emaz-

tea, nere ilberria artu zuaneko beste batekin ezkondu zan; nere antzeko beste tonto batekin... Eta ura gaizki, baña ni gaizkiago... ¡A Melitona, Melitona! Obe nuan zugaz ezkondu nitzanian nere burua orroko potzu orretara bota banu... Baña aberatsa zan, eta uste izan nuan portuna egin nuala... A... Ez nuan ez, portuna charra... Ezkondutako urrengo egunian esan ziran neskacha bearririk ez genduala ta oyak astintzeko... ¿Nik oya astindu? —erantzun nion... —¿Nork astinduko ditu zuk ezta?... —Emakumea nik oyerik astintzen eztaikit; serbitzari bat ekar zazu. —¿Oyerik astintzen eztaizula? ¿Serbitzari bat ekar dezadala? Ea, ea, egin laister agindu zaizuna, bestela onoko zigor onekin nik astinduko zaitut ederki. ¿Nik senarra zertarako dedala uste dezu ni serbitzeko baizik? —Eta ez nuan beste erremediorik oya astintzea baño.

Urrengo egunean esan ziran echea zikin-samar zegoala ta izuzkia artuta zillarra baño garbigo jarri nezala. —Baña Melitona—erantzun nion—oek ez dira gizonen lanak; echia garbitzen ikusten banaute, zugatik masiatuko dute. —Masiatu bezate nai dutena—erantzun ziran—ea azkar garbitzera, bestela badakizu zigorra nun dagoan; eta nai ta nai ez, izuzkia artu ta echea garbitu bear izan nuan.

Beste batean badator ta esan dit: —Tira, nik gaur bisita batzuek egin bear ditut eta ea eltzia egosi ta bazkaria jartzen dezun; ona nun dituzun babarrun, urdai ta aragia... ¿uste aldezu nor naik aragia jaten duala? Nerekin ezkondu ez baziña, goseak ill, edota, or egon bearko zenduan bazterren batean. Ea bada, ea nola jartzen dezun bazkari gosoa ni itzultzen naizenerako; eta eltzia egosten diran bitartian echea chukundu, ta ontzia garbitu.

Arrazoi oek entzutean asarratu nitzan, gogoratu zitzaidan gizona nitzala ta kolera bizian esan nion: —¿Geyago agintzekorik ez aldezu? ¿Kobadarik ez aldet egin biar? Zure sudurrak kobada on baten premia badauka ba. —¿Zer? ¿Ori ere badegu? Goseak illa. Nere echera etorri zera ta ¿orain arrokeri oyek? Artu zuan makilla bat eta

bazetorren zezen baten gisa nigana. Orduan ichi nion kanpoko atia eta kanpotik esan nion: Atso madarikatua, beste senar bat billa zan; nola ta beñepein inpernuko bi milla demoniok aidian eramaten etzauten, ondo merezia izango den eta. Eta ai nuan lasterren irten nitzan eche artatik eta alde egin nuan emazte deabru arregandik.

Urrengo egunian billatu nuan adiskide bat Amerika'ra zijuana. Soin bat egin nuan, Melitona'ren ezagun bati gezur eta abar diru puska bat kenduta; eta or, andik bi illabetera, nun ikusten dedan nere buruba Amerikan. Nere laguna andik urte betera ill zan; bere interes guziak neri utzi zizkidan eta nere izenaz enterratu eragin nuan; atera nuan ildakoaren garbitasuna ta biraldu nion nere erriko alkateari, ta gure Melitona alargun gelditu zan.

Ainbeste interesaren jabe egin nitzanian, uste izan nuan beti iraungo zutela, baña beti mermatu ta mermatu, ta lanik egin ez, amar urte barru, nere poltsa usttu zan, eta azkeneko milla duroekin ostera nere errira biurtu nitzan, nere bazterchora. Oek ere bukatu dira... nun bizi-rik arkitzen ez det, eta neretzat beste biderik ez dago nere burua iltzea baño. Onoko eskopeta au erosi det eta bala au izan biar du nere bizia kendu diar ditana... Baña... Bildur ematen dit... ¿Ez aldago iltzea besterik?... Eta gero... ¡Ai gero ikaragarria!... Nere bizia ez da neria... Jaungoikuak eman ziran, eta nere bizitzan Jaungoikuak bakarrik du eskubidea ta nere burua iltzen badet, Jaungoikuak inpernura biralduko nau... ¡ai, ai, ai!... Baña, ¿orain beldurtzen alaiz? ¿Nola biziko aiz?... Ea, ill adi ta pakea... Ez dek pake charra izango inpernuko zuloan... ¡ai, ai, ai!... Ez, tiroz ez diat ill biar. (Potzura gerturatzen da) Mutillak.. (potzura begirataaz) emen ura zio... (kartak ikustian) ¿Zer da au?... Kartak... ¿Nork utzi ote ditu emen karta oek? Jokalariren batek... Nunbait diru guztiak jokuan galdu ditu ta golpe au ezin eramane bere burua potzura bota du, ta potzu au da orain bere obia. ¿Beraz i ere or ago? A... laster izango dek or lagun bat. Agur Melitona, orainche bai egiaz alarguntzen zerala: (Asten da

bere burua potzura jaurtitzeko bezela, baña ots bat entzuten du eta dio:) Onera norbait zetorrek, eta ez diat nai potzura erortzen inork ikusi nazan. (Eskopeta artzen du ta potzuaren aurrialdean eskutatzen da)

#### IV

#### ESANA ta MELITONA'REN BIGARREN SENARRA

(Ondo samar jantzita, irtetzen da iruditegiaren alde batetik)

- BIG. Ezkondu ari, ezkondu ari, esaten zirateen; ezkondu ari, ondo biziko aizta. ¿Baña atso bigotedun orrekin ezkondu bear det? Ordea aberats dek. ¿Zer zioz bigoteduna izan edo bigotegabea? Orren aurpegiko illeak gorabera biziko aiz bai. Ederki jan, oparo edan, zaldun bat bezela jantzi... motell, andre aberats bat munduko portunarik onena dek; ezkonduari bada, eta ez ari tontua izan... Ezkondu nintzan bada, ezkondu; ta echean ez det arkitu emaztearen bigoteak baizik. ¡A Melitona, Melitona! ¡Ez didazu gaizki pegatu!...
- LEN. (Pozzako beste aldetik) To. Ori duda gabe nere emaztearen bigarren senarra dek. Entzun zayodan, entzun zayodan.
- BIG. Beti bere lenengo senarra aotan zuala: «¡A gizajoa! ¡Ura zan gizona ura! Ark oya astindu, echia chukundu, sukaldeko lanak egin, ontziak garbitu... Chokolatía ere oyera ekartzen ziran... beti nere goguak nundik beteko zituan... Ura zan, ura, gizon piña, senar bedeinkatua, aingerucho maitia...» Eta negar egiten zuan... A ill ez balitz, Melitona beste moduz biziko zan.
- LEN. (Beretzat) Gezurti paltsoa. ¿Eta nigatik negar?
- BIG. Baña emen norbaitek itz egiten du. (Alde guztietara begirartzen du) ¿Nor ote dago emen?... Baña etziok inor emen... «Zu, alproja zarra, esaten ziran, alper ustela... ¿zu zertarako zera, nere interesak jateko baño? Ia, zoaz cherriak zaitzera, jango bada, oek ere gizendu egin bear dira, ta etzaye konbeni beti cherritegian egotea.» —¿Ni cherri zai?



— Bai gizona bai. Jaungoikoak aurrrik ematen ez digun ezkeroz, beñepein cherriak zaitzazu.

LEN. ¡Ja, ja, ja!

BIG. ¿Baña par oyek, nork egiten ditu? Par oyek orroko potzuzulo ortatik esan diteke datozela. (Potzura begiratzen du) Baña emen ere ordea ez dek iñor agiri... Ni cherri zai ez nua. ¿Uste aldezu ni zure echera cherriak zaitzeko etorri naizela? —¿Ezetz? Orain ikusiko dek, alper zarra. Inpernuko sorgiña diruriala artzen du makilla bat eta otsoa lez or zetorrek ni jotzera; eltzen diot makillatik, biok burrukan asten gera, baña zezen batek baño indar geyago zeukazkian; botatzen nau lurrera, ezur ta mami ebakitzen nau, eta ito bear ninduala uste nuan... eta al nuan bezela iges egin nion... mutillak jura artza!

LEN. ¡Ja, ja, ja!... Ori, nik ere bazekiat nere kaltean.

BIG. ¿Baña zein arrayok emen par egiten du? Au bai dala sorginkeria... (Begiratzen du eta eztu ezer ikusten) Etziok iñor... (Ezpatak danden lekuraño dijoa) Onoko espata oyek ¿nork utzi ote ditu?... To; astakeri bat egiteko ondo zeudek... Ni mundu onetan ¿zertarako naiz? Atso batek burrukatu edo jotzen duan gizona, ez da gizona. Orrelako gizonak bere burua erreka batera bota bear du. Eta ibai batera bere burua bota edo espata oyetako batekin bere barrera zulatu, onetan desberdintasun aundirik etziok. Ar dezadan bada oetako bat. (Artzen du espata bat eta zorrotik ateratzen du) ¡Mutillak, zorrotza zio! Tira, asi nadin... ¿Nola sartuko ote det? ¿bat-batean edo poliki-poliki? Polikicho sar dezadan. (Papera egiten du sartu nai balu bezela) ¡Ai! Miñ artzen diat. Eta larruari ikututa beste gabe orrelako oiñazeak senti baditut, ¿zer izango ote da gibela, esteak, birrikak eta giltzurdiñak zulatzen dituanean? Ez, ez: orrela ez diat ill nai; dagoztela emen, espata oek lengo lekuan. (Uzten ditu) Onena izango diat orroko potzu orretara nere burua botatzea; or ez diat miñik artuko, nolata beñepein ura oso bian ez dagoan... Ikus dezagun... (Begiratzen du) ¿Bai ote dago gero urik or? Ez dezadala gero arkaitzen bat jo ta burua ausi... Bai, bai, ura baziok. Guazen bada...

jalimo Jose!... ¿Zer, orain bildurtu egiten alaiz?... Bestela atso zar orrekin bizi bearko dek, eta orrekin bizitzea baño obe dek iltzea... Tira, tira... Lenengo chamarreta ken dezadan. (Kentzen du ta potzuaren ertzera dijua) Or zulo orretan otz egingo dik, eta ito baño lenago, otzak ilko nauk; jantzi dezadan, jantzi dezadan nere chamarreta. Erleju eta diruai ¿zer egingo diet? Guazen erleju, diru ta guzi; bear bada, or ere erlejua ta diruak ez dituk alperrik izango... Abiara ar dezadan... (Atzeratzen du; lenengo senarrak eskopeta prestatzen du. Bestiak chistua eman, sifiatu ta esaten du) Bat, bi, iru, lau. (ta korrika asten da esanaz) Emen iltzan Sanson bere pilisteo guziekin... (Potzuaren gañean oña jarri ordurako, lenengo senarrak tiratzen du tiro bat) ¡Ai, ai, ai!... ¿Zein dabill emen? (Iges egiten du iduritegiko azkeneraño) Ia, ia, il ninduan norbaitek tiro batekin... ¿zein asto ote dago or tiroz gizonak iltzen?

V

ESANAK

(Lenengo senarra, ao-potzuaren atzetik irten da, eskopeta eskuan duala dijua bigarren senarrarengana. Oni ikara sartzen zayo eta negar moduan esaten diyo:)

- BIG. Barkatu, jauna, barkatu .. ez det geyago egingo ta...
- LEN. Gizona, zaude sosegu. Ez nijoakezu gaitzik egitera... ¿Beraz zu zera Melitona'ren bigarren senarra?
- BIG. ¿Ta ori nundik dakizu?
- LEN. Dena entzun dizut, gizona.
- BIG. ¿Bai? ¿Ta zu nor zera bada?
- LEN. ¿Ni? ¿Ni?... Ez dakit ni nor naizen zuk jakitia on izango ote dan.
- BIG. ¿Ze arrayo misterio dira oyek? Nor nai zerala, ¿zer zabiltz or gizonai tiroak botatzen? Leku charra berezi dezu lapurretan egiteko, beñepein neri guchi kenduko dirazu.
- LEN. ¿Ta zuri nork esan dizu ni lapurretara irten naizela?

- BIG. Ez dakit bada zertara irten zeran eta tiroka zer zara-biltzen.
- LEN. ¿Eta zu tiro batengatik ikaratzen zera? ¿Ez dezu bada esan zere burua potzu orretan ito nai dezula? ¿Zuri zer dijoakizu uretan ito edo tiroz ill?
- BIG. Ori neronek dakit, zuri ez dizut konturik eman bear; nere gogoa egiten zuk laga zaidazu.
- LEN. Beñepein, ni izan ez banitz, zu potzu orretan ito ziñan, ta neri etzait konbeni Melitona'ren bigarren senarra itotzia, bigarren aldian alargun gelditu ez dediñ.
- BIG. ¿Beaz zuk Melitona ezagutzen dezu?
- LEN. ¿Ez det bada ezagutuko, Melitona nere emaztia izan bada ni bizi nitzala?
- BIG. ¿Orain ez altzera bada bizi?...
- LEN. ¡Bai zera! Ni Ameriketan ill nitzan, eta Melitona'k nere ill berria jakin zuanian bigarren aldiz zugaz ezkondu zan. ¿Eta orain zuk zere burua uretara bota nai dezu, bigarren aldian Melitona alargunduta berriz ere ezkondu dedin eta irugarren senarraren zorigaitza ekar dezan? Ez, ez; bizi zaitte, bizi zaitte... eta Jaungoikoak eman zizun emazteaz zaude.
- BIG. ¿Bai, e? ¿Beraz zu Ameriketan ill ziñan, e? ¿Eta orain emen piztu? Bada piztu zeran kastiguz zereaz karga zaitte. Orain bai nere burua uretara botako ez dedala. Nai duanak bota dezala edo Melitona'ren senar egiazkoak bota dezala, eta berriz, ta egiaz iltzen bazera, zaude seguru ni atso orrekin ez naizela ezkonduko... Eta banua, ta juezari aitzera emango diot, Melitona'ren legezko senarra bizi dala ta jabeari berea eman dezayola.
- LEN. Gizona, etzazula egin orrelakorik. Ni ill nitzan; nere ill berria Españaiko konsulak pimatuta or dago, ta naiz zuk aitortu ez dizute sinistuko.
- BIG. ¿Ez didatela sinistuko? Bai, sinistuko didate, bai. Emen asko dira ezagutzen zaituztenak. Melitona'k berak lenengo ezagutuko zaitu, baita beste askok ere, ta nik, neronek, esango det zer dala bide Melitona'gandik alde egin

dezun, eta beste erremediorik ez dezu izango Melitona'rekin berri-berriro ezkontzea baño.

LEN. Aizu, adiskidea, seguru joka dezagun guk erabakitzen deguna biyoren kaltean izan ez dedin. Orain gu biok auzian asten bagera Melitona'ren senar egiazkoa nor dan, egundaño, onenian, auzia ez da bukatuko, ta biar bada biok beartuko gaituzte Melitona'ren senar izatea, ta orduan biok ederki supritu bearko degu ta obe da batek bakarrik supritzia.

BIG. ¿Eta zer?

LEN. ¿Zer?... Jokatu dezagun musean Melitona'z nor gelditu, ta Jaungoikoa'k ematen dionari San Pedro'k beinka deyoia.

BIG. Gizona, etzait gaizki iduritzen; ¿baña kartak non ditugu musean jokatzeke?

LEN. Portunaz, orche, potzu orren erpiñean ikusi det karta pare bat, eta esan diteke, norbaitek gurelzet laga dituaia. (Badijua kartak artzera) Ona kartak. Orroko aulki orretan eseri gaiten; lenengo sei amarrekotara joka dezagun, eta irabazten duanak irabazi ta galtzen duanak galdu.

BIG. Ondõ da... Eta portuna duana Melitona gabe bizi dedilla.

LEN. Ori da. Kartak ematera nua. Ebaki. (Kartak ematen ditu)

BIG. Mus.

LEN. ¿Zenbait?

BIG. Bota iru.

LEN. Nik bi.

BIG. Bost tanto enbido.

LEN. Nai det.

BIG. Paso chikira.

LEN. Guazen.

BIG. Parea bai.

LEN. Bai.

BIG. Sei tanto enbido.

LEN. Jaso tantoa.

BIG. Jokua bai.

LEN. Bai.

BIG. Ogei.

LEN. Ordago.

- BIG. Ogeita amaika eskutik.
- LEN. Nik *la real*; iru zazpikorekin ogeita amaika.
- BIG. ¿Eta zer? Ni nago eskutik.
- LEN. Baña iru zazpikorekin egiten dan ogeita amaikak, *la real* deitzen zayonak, geyago balio du.
- BIG. ¡Zer balio bear du gizona! Iru zazpikoz egin, iru chotekoz egin, ogeita amaika beti ogeita amaika, ta eskua beti esku... eta orain Melitona zuretzat... eta or konpon.  
(Jaikitzen da)
- LEN. ¿Neretzat? ¿Ez dezuz esaten bada zuk irabazi dezula?
- BIG. Bai.
- LEN. Bada, gauza irabazten duanarena izaten da, eta irabazi badezuz, zere irabaziaz gelditu zaitez.
- BIG. (Asarratuba) Jokua bai, nik irabazi det; orregatik Melitona da zuretzat.
- LEN. ¡Ederki zio! Nik jokua galdu ta Melitona irabazi, ta zuk jokua irabazi ta Melitona galdu. Irabazten duanak galdu, ta galtzen duanak irabazi. ¡Kontu ederra da ori! Etzaitez etorri orrelako erauziak, eta gelditu zaite zure Melitona'rekin.
- BIG. (Asarratuba) Aizazu: ezaidazuia gero neri burua berotu, bestela zugaz, ez egitekoren bat egingo det. Guk esan degu musean galtzen duana arrezaz gelditu dedilla, ta zuk galdu dezu; legez bada zurea da, ta or konpon zaitia; nai ez badezuz beñepein egurren batekin ezurrak ausitzea.
- LEN. ¿Zuk neri ezurrak ausi? Ago puskabat... (Eskopeta artzera dijon; besteak artzen diyo leenez; apuntatzen dio, baña ikusten du kargatu gabe dagoala) Tirazu, tirazu. Munizioak nik dituz; zuk eskopeta bakarrik.
- BIG. Orri eskerrak eman zaitozkatzu, bestela illa ziñan.
- LEN. Begira: kontu au bukatu dezagun. Zu edo ni, bitatik bat da Melitona'ren senarra; biok ezin izan gñiezke. Joka zagun *karaikruz* norentzat gelditu, ta sumatzen duanak bota dezala bere burua orroko potzu orretara; bestela berriz arbola orretan daude zinzilizka bi ezpata; bana artu ditzagun ta bizirik gelditzen dana gelditu dedilla emazteaz.

- BIG. To... ederki zio. ¿Ezpata oyek nun dira?  
LEN. Ona nun dituzun. (Bat ematen diyo)  
BIG. Ondo da. Tira; atera zorrotik eta asi gaiten; eta iltzen dana zulora, ta bizirik gelditzen dana Melitona'rengana... Tira... ¿Ze ari zera? Jo nazazu; bada nik nayago det iltzea, geyago Melitona'rekin ikustia baño.  
LEN. Baita nik ere; sar nazazu biotzetik ezpata ori eta gelditu zaite zere emazteaz.  
BIG. (Asarratuba) ¿Ze gizon arrayo da gizon au?... Ea azkar, edo asi zaite edo ezpata au zure bizkarrean ausiko det. (Ezpata jasotzen du)  
LEN. ¿Nere bizkarrean? (Onek ere ezpata jasotzen du ta gogorkiro asten dira pelian)

## VI

### ESANAK, DENDARIA, ZELADORIA, GARBITZALLEA ta MUTILLA

- DEND. (Dendatik irtetzen da ta pelia ikustian deadarka asten da) ¡Zeladoria, Zeladoria!... Bi gizon alkar iltzen dabiltzala... (Zeladoria alde batetik ta garbitzallea bestetik agertzen dira, bata ezpatarekin ta bestia bere izuzki luzeaz, Biak sartzen dira peliatzen ari diranen tartean; garbitzalleak bere izuzkia eramaten die aurpegira)  
ZEL. ¡Alto... alto!... ¿Zer da au? Ni zeladoria naiz, agintaria, ta obedezitu neri. ¡Alto... Alto!... (Peliatzalliak ikustean garbitzalleak bere izuzkia aurpegiyetan jartzen dietela, asten dira sablazoka garbitzalleaz. Au igesi asten da ta beste biak onen ondoren alik eta garbitzalleak bere izuzkia potzuko uretan busti ta geldiarazten dituan arte)  
ZEL. Asko da. (Ateratzen du paper bat eta lapitza ta esaten diye) Ea onera zuek, ezpatadunak. ¿Nor zerate? ¿Nunguak zerate? ¿Eta zer dala bide alkar ill naidezute?  
LEN. Ni aspogillea naiz.  
BIG. Ni sastria.  
DEND. Oso traste politak bata ta bestia.  
LEN. Onoko au Melitona'ren senarra...

- BIG. Gezurra. Melitona'ren senar legezkoa au da...
- LEN. Ori ez da egia...; edo bestela onoko ezpata onek... (berriz asten dira peliatu nayian, Ordea zeladoria ta garbitzallea sartzen dira biyen artian, eta garbitzalleak berriz ere bere izuzkia jartzen die sudurrea aurrian; biak ostera erasotzen diote garbitzalleari, eta asten dira korrika iduritegi guzian)
- MUT. (Diadarrez) ¿Zuen artean ote dago Melitona Muturbeltzen senar egi-egiazkoa?
- BIG. Bai, ona, au da.
- LEN. Ni ez; onoko au.
- MUT. Bada onoko telefonema au etorri da Melitona'ren legezko senarrarentzat.
- BIG. Bada emayok oni.
- LEN. Neri ez; orri emayok.
- ZEL. ¿Baña zuek biotako bat alda Melitona'ren senarra?
- BIG. Bai, ori.
- LEN. Ez, au.
- ZEL. ¡Ba, ba!... Ekatzu onera telefonema ori, ta zer dion ikusi dezagun. (Telefonema artu, zabaldu ta irakurtzen du) Gaur goizeko amarretan Jaungoikoari kontu eman dio Melitona Muturbeltzak, eta laga ditu testamentuan bere egiazko ta legezko senarrarentzat, bizi zan echia ta amar milla duro.
- LEN. ¿E?... ¿zer?
- BIG. ¿Nola, nola? (Bi senarrak gerturatzen dira zeladorearengana)
- ZEL. ¿Ez aldezute entzun? Melitona Muturbeltz deritzan bat ill dala gaur goizeko amarretan, eta bere legezko senarrarentzat utzi dituala bizi zan echea ta amar milla duro.
- LEN. ¿Ill alda beaz Melitona? Nere emazte maitea... ai, ai, ai. (Negarrez)
- BIG. Nere biotzeko kutuna... Nizaz oroitu zera orregatik azkeneko orduan badere... ¡ai, ai, ai!... (Negarrez)
- LEN. (Bigarrenari) ¿Baña zuk zeri negar egiten diozu?
- BIG. ¿Ez det bada negar egingo emaztea ill da?
- LEN. Baña Melitona nere legezko emaztea zan.
- BIG. ¿Zuria? Bai bizi izan baziñan, bañan ill ziñan ta, zu ill da gero; alargunarekin ni ezkondu nitzan, eta ni naiz Melitona'ren egiazko senarra.

- LEN. ¿Ni ill nitzala?
- BIG. Bai, orche dago güre echean zure illberria, España'ko konsulak pirmatuba, ta zuk Melitona'rekin zer ikusirik ezdezu.
- LEN. Ori ikusi egingo degu.
- BIG. Ori ikusia dago.
- LEN. Jaunak. (Bestei begiratuaz) ¿Ni bizirik edo illik nago?
- ZEL. Bizirik zaudela esan liteke; makiña bat berriketa egiten dezu beñepein; ta nik illidakorik orrela jarduntzen ez det egundaño ikusi.
- LEN. ¿Onek noia dio bada ill naizela?
- ZEL. Ori berak jakingo du.
- BIG. Egia da; au Melitona'ren lenengo senarra izan zan. Ameriketara juan zan ta andik etorri zan onen ill berria, ta gero ni onen alargunaz ezkondu nitzan, eta baldin au gaur ill bada, nere egiazko ta legezko emaztea izanaz ill da, ta onen echea ta amar milla duroak nereak dira.
- LEN. ¿Zuriak? ¡Ez ala zankoa! Baldin munduan legerik bada, ez dituzu gozatuko ez eche ta ez dirurik. ¿Nere emazte maitea ill, da onek bere gauzak bere senarrarentzat utzi, ta beste bat gauza oen jabe egin? Ori ez da legea. ¡Ai nere Melitona'cho gozo ta ezta! ¡Ai nere aingeru ederra! (Negar egiten du)
- BIG. ¡Ai nere negar guzien zapia... nere egarriaren preskura... nere gaitzen sendakaya... nere eziñaren laguntza... nere errayetako emazte maitagarria... nere amorioaren prenda! Zure eche ta amar milla duroaz nere zarzaroa ondo igarotzea uste det, eta zure animagatik egunero meza atera, errosario santua errezatu, ta egite onak egiñaz biziko naiz, zuzaz Jaungoikua errukitu dedin... ¡Ai, ai, ai!...
- LEN. Zaude isillik, gizon lotsagabea... Orainche puntuan atso madarikatua deitzen ziñion ¿ta orain orrelako paperak?
- BIG. Eta zuk berriz, ill ziñala ta nerea zala ziozun... ¿Eta orain arren echea ta dirubak nai aldituzu?
- ZEL. Nai badezute, zuen auzi ori nik erabakituko det.
- BIYAK ¿Zuk? ¿Nola?
- ZEL. Interes oyek norenak diran erabakitzera juezetara ba-



zoazte, letraduak eta juezak denak irentziko dizkizute, ta obe dezute adiskide onak bezela biyen artian partitu... eta ala pakia.

LEN. ¿Badakizu zeladore au zuzen mintzatu dala?

BIG. Neri ere ala iduritzen zait.

LEN. Ea bada; kontu egin dezagun ni ill nitzala. Zu zera orduan Melitona'ren legezko senarra. Jabetu zaitetz bada onen echez ta amar milla duroaz, ta bion artean partitu ditzagun.

BIG. Ori da.

LEN. ¿Baña gezurrikan gabe e? Etzaitetz gero echea ta diruaz jabetu, bestela oek aitortuko dute gure konponketa eta asmo okerrik badezu batere gabe geldituko zera.

BIG. Ez, ez; ezazula beldurrik izan. Ona guk egiten degun tratua. Echeak guchi gora bera amar bat milla duro balio ditu; nai badezu zu echeaz jabetu zaitetz eta ni diruaz; eta echea obe iduritzen bazaitzu, ni amar milla duroakin geldituko naiz. Eta gure konponketa ala izandu dala adierazteko, orainche bertan paper bat egin dezagun.

LEN. Ongi zio! Eta orain guazen guziok ostatura eta Melitona'ren bizkar bapo apal dezagun.

GAR. Zaude puska bat. Entzun, entzun: (*Zaldi zuria*'ren soñuz kantatu beza)

Melitona izandu da  
zuen emaztea;  
etzan osoro zarra  
eztare gaztea.  
Bata auspogillea  
bestea sastrea...  
ichu aurrekutzako

inolako pare!  
Ill da orain tristia  
erruki gabea  
utzirikan biyontzat  
diru ta echea.  
Au bukatu da eta  
guazen apaltzea. (bis)







# LIBROS VASCOS

	<u>Pesetas</u>
Porru-salda. Monólogo, por Ignacio N. Camarero Arizmendi .....	0,50
Jauregi-errotako astoa. Monólogo, por Alfonso M. <sup>a</sup> de Zabala .....	0,50
Jose Ebaisto. Monólogo, por I. N. Camarero <sup>m</sup> Arizmendi..	0,50
Urruti-izketa. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. de Zabala.....	1
Melitona'ren bi senarrak. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. de Zabala.....	1
Urikoa. Comedia de A. Trueba, vertida al euskera por J. M. de Echeita. ....	0,50
Neurtitzak eta neurri gabeko itzak. Recopilación de todas las obras en verso y prosa, de Bilinch. ....	0,90
Jolasak. Diálogos escritos en euskera guipuzkoano por A. P. Iturriaga, y vertidos al bizcaino, laburdino y zuberoano.....	0,90
Ipui onak. Fábulas en prosa guipuzcoana, por Vicenta Antonia Moguel.....	0,90
Zinistuten dot Jaungoikoagan - Urikoa - Jon-usc. Cuentos de Antonio Trueba vertidos al idioma vasco por J. M. de Echeita y N. Larrea .....	0,90
Gure orma zarra. Sermón pronunciado por el P. Pierre Lhande en las Fiestas Euskaras de Oyarzun.....	0,25
Trueba. Su significación en la moderna literatura vasca, por Gregorio de Mujica .....	1,50
La pelota y los pelotaris, por A. Peña y Gofii. Dos tomos.	4

Todas estas obras se hallan de venta en San Sebastián, en la librería de San Ignacio de Loyola, Garibay, 28.